

Ebazpena: R025/2024
Espedientea: E012/2023

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 19a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) gatazka planteatu du Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren (aurrerantzean, OFPM) aurrean, RRSaK Bizkaian tailer berri batetik garatuko dituen jardueren inguruko eragiketen kokapenari buruz egindako zerga-kontsulta ebazteko. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 12/2023 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- RRSaK sozietateak lurralde erkidean du egoitza fiskala, eta 2019an 10.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditu zuen.

RRSaK ekipamenduak fabrikatzen ditu, eta ekipamenduak konpontzeko eta ordezeko piezak saltzeko tailerrak ditu.

Bizkaian tailer berri bat ireki, eta honako eragiketa hauek egingo ditu:

- Ekipamenduak konpontzea probintzia mugakideetan; horretarako, joan-etorrietarako furgoneta bat duten langileak baliatuko dira.
- Ordezko piezak saltzea. Ordezko piezen zati bat egoitza nagusitik dator. Ordezko pieza batzuk tailerreko bezeroari bidaliko zaizkio zuzenean egoitza nagusitik.

2.- 2020ko uztailaren 21ean, kontsulta egin zion BFari, eragiketen kokalekua ezagutzeko, zerga-ordainketa eragiketen bolumenaren proportzioan zehaztu ahal izateko.

3.- Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak (aurrerantzean, EZKO) erantzun-proposamena 2022ko irailaren 26an bidali zion OFPMri.

Foru-lurraldean nahiz lurralde erkidean kokatutako bezeroei konponketa-zerbitzuak emateari dagokionez, EZKOk ulertzen du sozietate horrek zerbitzuak ematen dituen lurraldean kokatzen direla. Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan egindakotzat jotzen ditu, eta, horren barruan, Bizkaian egindakotzat, baldin eta kontsultagileak zerbitzu horiek Bizkaiko tailerretik kontratatu eta antolatzen baditu, eta bertatik bidaltzen baditu bezeroari zerbitzu horiek emateko behar diren langileak.

Bizkaiko tailerreko ordezeko piezen salmentari dagokionez, bere ustez, kontsultagileak ondasunak bezeroen eskura jartzen dituen lurraldean kokatzen da. Orduan, EAEko lurraldean egindakotzat hartuko dira, eta horren barruan, Bizkaian egindakotzat, kontsultagileak erosleei Bizkaiko tailerrean egiten dizkien ordezeko piezen salmentak, bertan garatzen baitu ordezeko piezak konpondu eta saltzeko jarduera. Hau da, tailer horretan materialki entregatzen dituen ordezeko pieza horien salmentak, erosleei horien gaineko jabetza eta aipatutako jabetzari lotutako arriskuak transferituz.

Egoitza nagusitik tailerreko bezeroari zuzenean bidaltzen zaizkion ordezeko piezen salmentaren haritik, erosleen eskura jartzeko garraiatu egin behar diren ondasun gorpuzdunen aurrean gaudela ulertzen du. Ondorioz, ondasun-emate horiek bidalketa edo garraioa hastean dauden lurraldean kokatuko dira, erakundeak jarduera bertan garatzen duen heinean, instalazio eta baliabide propioekin zein besterenekin, edo dagokion tokiak zergapeko merkaturatze-prozesuari balioa erantsi ahal dion neurrian. Emandako informazioaren arabera, kasu honetan, bezeroen eskura jartzeko ondasunen garraioa hasiko den lekua bat dator kontsultagilearen egoitza nagusiarekin —bertan garatzen ditu dagozkion jarduerak—. Beraz, ondorioztatu daiteke ordezeko piezen entrega horiek lurralde erkidean egingo direla.

4.- OFPMk 2022ko azaroaren 25ean helarazi zizkion proposamenaren inguruan egindako oharak.

Ez dago ados egoitza nagusitik tailerreko bezeroari bidaltzen zaizkion ordezeko piezen salmenten kokapenari dagokionez; izan ere, OFPMren ustez, garraioaren hasieraren araua aplikagarria izan dadin, zergadunak jarduera bat egin behar du ondasunak dauden lekuan eta, gainera, balio erantsia sortzen duen jarduera izan behar du horrek.

Gainera, OFPMk ulertzen duenez, kontsultak ez du erantzun erabakigarria emateko behar den informazioa jasotzen, eta, hortaz, nahiago du erantzun irekia ematea.

Azkenik, bi desadostasun daude —bi administrazioen artean ohikoak— erantzunean aipatu behar den araudiari buruz (Espainiakoa edo foru-aldundikoa) eta erantzuna ematen duen organoari buruz (Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordea dela ulertzen da).

5.- EZKOk beste proposamen bat bidali zuen 2023ko urtarrilaren 23an. Horren arabera, zergadunak toki finko eta egonkor batean egiten badu lan, eta leku horretan, gainera, beharrezko diren baliabideak baditu, norberarenak edo besterenak, ezinezkoa da kokaleku horretan balioa gehitzen dela ukatzea.

6.- OFPMk 2023ko otsailaren 16an helarazi zizkion azken proposamenaren inguruko oharra.

7.- Azkenik, 2023ko otsailaren 27an, gatazka planteatu zen Arbitraje Batzordean, eta 12/2023 espediente-zenbakiarekin, Ekonomia Itunaren 68.Bi artikuluan aurreikusitakoaren arabera izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak dauka eskumena kontsulta hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua haxe aurreikusten baitu Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen funtzioei dagokienez:

«b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharririk egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharririk badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharra egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administrazio ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

2.- Funtsezko irizpideak.

Eztabaidagai diren eragiketen kokapenari buruzko irizpidea jada ebatzi zuen Arbitraje Batzorde honek 2022ko maiatzaren 6an (16/2022 Ebazpena, zeina ondorio guztietarako errepikatutzat jotzen baita), eta Auzitegi Gorenak berretsi egin du 2024ko urtarrilaren 8an (ECLI:ES:TS:2024:18).

3.- Arbitraje Batzordearen iritzia.

Administrazioak bat etortzea nahikoa da zergadunari 2020an zerga-betebeharrak betetzean beharrezko den segurtasun juridikoa emango dion erantzuna emateko, are gehiago kontuan hartuta funtsezko gaia Arbitraje Batzordearen 16/2022 eta 7/2021 ebazpenen bidez argitu zela (Auzitegi Gorenean ez zen errekurritu), eta, beraz, posible zen erantzun irekia ematea horietara jota.

Estatuko araudiari buruzko aipamenen inguruko desadostasunek ere ez liokete RRSari eskubidea kendu behar.

Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 8. artikulua 39/2015 Legea igortzen du modu osagarrian. Lege horren 88.1 artikuluan xedatzen da ebazpenen espedientetik eratorritako gai guztiak erabakiko direla, alderdiek berariaz planteatu dituzten ala ez kontuan hartu gabe.

Kontuan hartuta Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua kontsulta bera ebazteko eskumena Arbitraje Batzordeari esleitzen diola, ez da inolako mugarik hauteman horrek esplizituki aipa ditzan foru-araudia eta Espainiako araudia. Beraz, ezin zaio aplikatu aipatzen den Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen ustezko muga.

Ondorioz, kontsultagileari ez zitzaion beharrezko den segurtasun juridikoa kendu behar, Arbitraje Batzorde honek lau urte geroago emandako erabaki batek eragindako kaltea konpontzea posible izan gabe.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Prozedura artxibatutzat deklaratzeko, bestelako izapiderik egin gabe, gerora bere xedea galdu duelako, zeina baita arrazoizko epean erantzun bat eman ahal

izatea, kontsultatzaileari zerga-betebeharrak betetzeko segurtasun juridikoa emateko.

2.- Erabaki hau Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari eta RRSari jakinaraztea.